

GAZTEAK ETA GIZARTEA KEXA-GUTUNA



DBHko 3. maila. Hizkuntzen Trataera Bateraturako materialak

**HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUEN PROGRAMA
PROGRAMA DE TRATAMIENTO INTEGRADO DE LAS LENGUAS**

DBHko 3. mailarako materialak / Materiales para 3º de E.S.O.

PROIEKTUA / PROYECTO: Gazteak eta gizartea

UNITATEAK: **Gazteak eta gizartea. Kexa-gutuna.**

UNIDADES: Jóvenes y sociedad. Mesa redonda.

ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA: Teresa Ruiz
DIRECCIÓN Y COORDINACIÓN:

SORTZAILEA: Nerea Badiola
AUTORA:

KOLABORATZAILEAK: M^a Inmaculada Marcos, Maribi Apraiz, Marimar Pérez
COLABORADORES: eta Hizkuntza eta Gizarte esparruko Bigarren
Hezkuntzako Aholkulariak

Berritzegune Nagusia (Bilbao)
Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
Gobierno Vasco. Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

MATERIAL HONEN JABETZA EUSKO JAURLARITZARENA DA
MATERIAL PROPIEDAD DEL GOBIERNO VASCO

2008ko urria
Octubre de 2008

Argudio-testua eguneroko bizitzan erabiltzen duzuen testu-tipoa da. Imaginatu oso garestia den eta modan dagoen jantzia, futboleko botak, ordenagailu-jokoa... nahi dituzuela, benetan nahi duzuen zer edo zer, eta gurasoei eskatu behar diezuen. Nola eskatuko zeniekete? Zuentzat hori hil ala bizikoa, premiazkoa dela adierazten ahaleginduko zinatekete, ezta? Baina, normalean horrelakoetan ez duzue arrakasta handiegirik izaten. Zuentzat, erabili dituzuen argudioak argiak eta pisuzkoak badira ere; haientzat, aldiz, ez.

Beste batzuetan taldeko eta koadrilako lagunekin ere antzeko egoeran izaten zarete. Batek nahiago du futbol/saskibaloia partidua ikustera joan eta besteok alboko ikastetxeko neskekin/mutilekin geratu. Bata bestea konbentzitzen ahaleginduko zarete, norberaren "arrazoiak" besteari ulertarazten.

Ondo argudiatzea ez da erraza, argudiatzea ez da "hau nahi dut" esatea eta argudiotzat "nahi dudalako" erabiltzea. Argudiaketak besteak konbentzitzea du helburu, besteak norberaren aldera erakartzen ahalegindu behar zarete, gauzak norberak ikusten duen legez ikustarazten. Bestalde, besteak zu konbentzitzen ahalegintzen direnean, arrazoizko argudioak erabiltzen dituzten ala ez bereizten ikasi behar duzue.

Euskarako unitate honetan, talde bakoitzak kexa-gutun bat idatziko du bere intereseko gai bati buruz (emakumeen egoera, etorkinen egoera...), eta eskualdeko egunkarira, arartekoari edo beste instituzio bati bidaliko dio. Gaztelaniako ekoizpena, berriz, zuek aukeratutako hainbat gairi buruzko mahai-ingurua izango da. Eta ingelesekoa, gazte-tribu edo talde marjinal bati buruzko liburuxka izango da.



0. jarduera. Motibazioa eta negoziazioa
1. LAN-SEKUENTZIA. ARGUMENTATZEA, ZER DA? 1. jarduera. Testuak aztertzen. 2. jarduera. Argumentatzea, zer da? 3. jarduera. Argudio-testuak aztertzen.
2. LAN-SEKUENTZIA. TESIA ETA ARGUDIO-MOTAK 4. jarduera. Zer defendatuko dugu? 5. jarduera. Gure argudioak, zeintzuk dira? 6. jarduera. Arrazoi guztiek balio al dute? 7. jarduera. Argudioei aurre egiten. 8. jarduera. Zuen tesiak eta argudioak, zeintzuk dira?
3. LAN-SEKUENTZIA. KEXA-GUTUNA NORENTZAT 9. jarduera. Testuaren egokitasuna. 10. jarduera. Egokitasuna eta gutunaren atalak. 11. jarduera. Kexa-gutun formala, norentzat?
4. LAN-SEKUENTZIA. ARGUDIO-TESTUA IDATZIKO DUGU 12. jarduera: Informazioa bilatu. 13. jarduera: Gure argudio-testua. 14. jarduera. Kohesio-elementuak. 15. jarduera. Modalizazio-markak. 16. jarduera. Egindakoa birpasatzen.
5. LAN-SEKUENTZIA. KEXA-GUTUNA EKOIZTEN 17. jarduera. Kexa-gutun formala, nolakoa da? 18. jarduera. Lehen zirriborroa. 19. jarduera. Azken ekoizpena.
Auto-ebaluazioa

0. jarduera. Motibazioa.

Ezagutzen al dituzu honako erakunde hauek?

Taldeka, lotu logotipo bakoitza bere erakundearen eginkizunekin.




Gaur egun, nazioarteko erakunde handiena da. Beren helburu garrantzitsuenak hauek dira: nazioarteko zuzenbidea, ordenua, garapen ekonomiko eta soziala eta giza eskubideak bermatzea.



Nazio Batuak

Euskal Autonomi Erkidegoko kontsumitzaile eta erabiltzaile guztiak babesteko daude, dituen bitarteko guztiak erabiliz. Hitzartutakoa betetzen ez bada, kontsumitzaileek elkarre haurtariko batera jo dezakete, bertan, euren kexak bideratzen lagunduko zaie.



Herritarrek udalari kexa eta iradokizunak egiteko edo udalerrarekin loturiko gaiak jakinarazteko aukera izango dute zerbitzu honi esker.



Bere eginkizun nagusia da herritarrak arretaz hartzea, administrazioaren jardura oker edo legez kontrakoan kontra egiten dituzten kexei dagokienez, eta kexok prozedura jakin baten arabera bideratzea.



Udaletako kexa-zerbitzua


Boluntarioek osatutako mundu-mugimendu independentea dugu, giza eskubideen nazioarteko babesean zeregin berezia duena.

Entzun honako grabazio hauek, bidegabetzat jo ditzakegun egoerak azaltzen dira bertan. Entzungai bakoitzerako, pentsatu aurreko orriko erakunde bakoitzari zuzendutako kexa-gutun baterako gai posiblea eta idatzi txantiloian.

ENTZUNGAIK:



Urrutiko esklabuak



Heriotz zigorra



Lehen emakume boto-emaileak



Hotelean haurrak debekatuta




Trafiko-isunak oinezkoei

NORI ZUZENDUTA	ENTZUNGAIA
ARARTEKOA	
NAZIO BATUAK	
AMNESTY INTERNATIONAL	
KONTSUMITZAILEEN ERAKUNDEAK	
UDALETAKO KEXA- ZERBITZUA	

Gaztelaniako unitatean mahai-ingururako aukeratu dituzuen gaietara lotutako kexa-gutunak bururatzen al zaizue?

Idatzi honako koadro honetan bururatutako gaiak:

KEXA-GUTUNAREN GAI POSIBLEAK



Baina gure kexak norbaitek entzungo al ditu? Askotan pentsatzen dugu kexatzeak ez duela ezertarako balio, baina eskatzen dugun horretarako eskubidea badugu, eta pisuzko arrazoiak erabiliz argumentatzen badugu, geure helburua lortu ahal izango dugu. Taldeka, irakurri testua, eta ondoren ikusi testuari buruzko bideoa.



(Entrevista a Willy Meyer sobre el caso de David Raya)

Un joven catalán protesta ante la Eurocámara por la norma que limita los líquidos en los aviones

David Raya, que padece fibrosis quística y diabetes, ha explicado que este reglamento le acarrea constantes problemas a la hora de transportar sus medicamentos

Europa Press Bruselas | 27/05/2008

El joven catalán **David Raya**, que padece fibrosis quística y diabetes, ha presentado este martes ante la comisión de Peticiones de la Eurocámara una queja contra la norma que limita la cantidad de líquidos que se pueden llevar en el equipaje de mano de los aviones. Según ha explicado, este reglamento le provoca constantes problemas para poder transportar los medicamentos que necesita para tratarse porque no es público y se aplica de forma arbitraria. Por ello reclamó que se suprima o se modifique.

La Comisión Europea ha lamentado las dificultades con las que se encuentra Raya. Asimismo, ha anunciado que **pronto se publicará esta legislación en su totalidad**, y ha resaltado que sólo podrá suprimirse cuando se desarrollen máquinas que puedan detectar en los controles aeroportuarios líquidos explosivos en el equipaje de mano.

"Controles humillantes"

En su comparecencia ante la comisión de Peticiones, Raya ha explicado que por sus enfermedades debe tomar cada día más de 40 pastillas y otros medicamentos líquidos. El día después de la entrada en vigor de las restricciones a los líquidos, el 7 de noviembre de 2006, debía tomar un avión de Berlín a Barcelona. Y, al llevar consigo estos medicamentos, en el aeropuerto de Berlín le **aplicaron controles "muy exhaustivos"** y "muy humillantes", según consta en su denuncia.

"Mis insulinas, mis antibióticos, mis aerosoles y mi máquina de vaporizar la medicación se habían convertido de la noche a la mañana en armas de destrucción masiva y yo en un supuesto yihadista con un máster en química para poder mezclar todos mis medicamentos y crear un explosivo", ha dicho a los eurodiputados.

Ha explicado que, por su condición de diabético, lleva siempre consigo una lata de Coca-Cola para recuperar los niveles de azúcar en la sangre. "En algunos aeropuertos, la Coca-Cola ha podido subir conmigo y en otros ha sido declarada peligrosa y sospechosa de terrorismo", ha indicado. Además, cada vez que coge un avión debe mostrar a la Policía y a los vigilantes de seguridad un historial médico que "es confidencial o debería serlo".

Distinguir los líquidos explosivos

La representante de la Comisión, **Marion Knoben**, ha explicado que Bruselas tiene previsto publicar todos los anexos de la norma sobre restricciones de líquidos que todavía son secretos para lograr una mayor transparencia. En cuanto a la supresión del reglamento, Knoben explicó que "estamos buscando alternativas para que los líquidos puedan introducirse a bordo de los aviones, pero esto cuesta tiempo porque tenemos que desarrollar la maquinaria para distinguir los líquidos explosivos de los líquidos como tales".

Durante el debate posterior, el eurodiputado conservador británico **Robert Atkins** ha dicho que considera que esta norma es **"absolutamente esencial" para luchar contra el terrorismo**. A su juicio, el problema está en cómo se aplica y cómo garantizar que el personal de seguridad de los aeropuertos lo haga correctamente.

El representante de Izquierda Unida, **Willy Meyer**, ha señalado que se trata de una norma "oscurantista" y ha recordado que la abogada general del Tribunal de Luxemburgo ha pedido que se declare "inexistente". En este sentido, ha dicho que el anuncio de la Comisión de que publicará su contenido demuestra que la batalla de David Raya "no caerá en saco roto".

Negoiazioa.

Unitate honetan, azken ekoizpen egokia lortzeko jarraituko duzuen prozesua argi izatea komeni zaizue. Ez ahaztu argumentazioaren helburua konbentzitzea dela eta hori lortzeko komunikazio-egoera mantendu beharra duzuela. Nola? Gutuna idazterakoan tonu egokia erabiliz eta beste hainbat ezaugarri kontuan hartuz.



Horretarako, honako txantiloia honetan dagoena aztertu eta hausnartu tentuz. Hiruko taldean lan egin eta adostu hor dagoenaren zentzua eta garrantzia prozesuan, zer edo zer falta bada, gehitu.

Zer ikasiko dugu?	Nolako jarduerak egingo ditugu	Nola ebaluatuko dugu lana?
- Argudio-testuen ezaugarriak - Tesia eta gaia bereizten - Argudiatze- eta argudio-motak - Bakoitzaren iritzia adierazten eta ondo arrazoituz argudiatzen - Besteen iritziak entzuten - Testua kohesionatzeko baliabideak erabiltzen - Kexa-gutunen egitura eta ezaugarri behinenak - Talde-lana burutzen ...	- Testuak irakurri edo entzun, aztertu eta ekoiztu. - Informazioa sarean eta liburuetan bilatu - Taldeka eztabaidatu - Norberaren eta ikaskideen ekoizpenak berrikusi eta zuzendu	PROZEDURAK - Auto-ebaluazioaren bidez - Ikaskideen ebaluazioaren bidez - Aurkeztutako testuen bidez - Probatxoaren bidez - Koadernoetan egindakoaren bidez - Azken talde ekoizpenaren bidez ... JARRERAK - Parte-hartze aktiboaren bidez - Taldekiekiko jarrera balioetsiz ...

1. LAN-SEKUENTZIA ARGUMENTATZEA, ZER DA?

Sekuentzia honetan argudio-testuek, beste testu-tipoekin alderatuz, nolako ezaugarriak dituzten ikasiko duzue. Argumentatzea zer den ikasiko duzue eta argudio-testuen egitura.

1. jarduera. Testuak aztertzen.

Taldeka, irakurri honako testu hauek eta ondoren bete behaketa-txantiloia. Testuak irakurri baino lehen, behaketa-txantiloia irakurtzea lagungarri izango zaizue.

1. testua

Zuzendari jauna:

2007-11-28

Aritz Ibargutxi naiz eta zuengana jotzen dut pasa den egunean zuen markako produktu bat erosi nuelako eta berak eragindako kalteak konpontzeko irtenbidea topatzeko asmoarekin.

Orain dela aste bat "Proper Bang" deitutako produktua erostera joan nintzen nire auzoko supermerkatu eta etxera itzuli nintzen produktu berria erabiltzeko irrikaz.


Produktua erabiltzen hasi nintzen etxe guztian, baina ez zuen emaitza onik izan: komuneko zorua produktua erabili baino lehenago zikin bazegoen igurtzi ondoren, askoz zikinagoa zirudien, produktuaren etiketan edozein hodi libratu ahal zuela adierazten zenuten baina, probatu nuenean ez zituen tutuak libratu eta etxe guztia urez bete zitzaidan.

Haserretuta, dendara jaitsi nintzen produktua erreklamatzera baina dendariak ez zidan sosik ere itzuli, zuen ardura zela eta zuekin harremanetan jartzeko esan zidan.

Kexa honen bitartez zera espero dut: zuen produktua erabiltzeagatik etxean izandako kalteen erantzule zaretela onartzea eta kalte-ordainak ordaintzeko akordio batera heltzea. Hori posible ez bada, iragarkietan ez publikatzea egia ez dena!

Agur!

Aritz Ibargutxi



Ez naiz zure iritzikoa.
Zeharo desbideratuta zabiltza.

2. testua

BALOI BATEN ISTORIA



Pau Gasol, Allen Iverson, Kobe Bryant, Saquille O'Neal eta baita Michael Jordanen eskuetan ere egon nintzen ni. Duela urte asko NBA ligako saskibaloiko baloirik hoberena izan nintzen. Beno, ez nuen Munduko koparik jokatu baina final handiak protagonizatu nituen, eta oso harro nago horretaz. Orain non nagoen galdetuko diozue zeuon buruari: ba guztion harridurarako ez nago NBA ligan eta EEBB etatik oso urrun nago. Hain zuzen ere, Euskal Herriko institutu batean bizi naiz orain. Koldo Mitxelena da institutuaren izena, eta berriro ere, zeuon buruari, zera galdetuko diozue: "nola iritsi zinen horraino?". Istorio bitxia da, baina kontatu egingo dizuet, garai zaharrak gogoratzea izugarri atsegin baitut:

"Partidu batean nengoela, jada ez dut gogoratzen zeinetan, Kobe Bryant-ek hartu ninduen. Zoritxarrez, estropezu egin zuen, et ni jendea zegoen tokirantz joan nintzen abiadura bizian. Han, mutiko batek hartu ninduen: ile-horia zen, baxua eta begi handi-handiak zituen. Berarekin eraman ninduen, eta bi egun geroago, goiz hodeitsu eta bero batean, portura eraman, eta uretara erori nintzen. Oraindik gogoan ditut haren negar-hotsak.

Ni beldurtzen hasi nintzen, baina hiriaren etxe-orratz altuak silueta bihurtu zirenean, nire egoera larriaz jabetu nintzen: bi egun lehenago NBA-ko baloirik hoberena nintzen, eta orain? Orain ozeanoaren erdian nengoen aldurik, inoren laguntzarik gabe. Bat-batean, nire aitonak (hondartzako pilota puzgarri horietakoa zen nire aitona) kontatu zidan gauza bat gogoratu nuen: *Itsasoan, marrazo handiak daude, hortz zorrotz-zorrotzak dituztenak. Eta bakean utziko ez zaituzte uzten hortz bat sartu eta BOOM! zuk eztanda egin arte.* Airea izoztu egin zitzaidan nire barnean. Marrazoak. Eta bat-batean zerbait sentitu nuen nire azpian... eta goraka igotzen hasi nintzen. Hegan ari al nintzen? Behera begiratu nuen, eta arrain pilo bat ikusi nuen, hauek ere uretatik kanpo eta sare batean bilduta; ni sarearen goialdean nengoen, arrain guztien gainean. Esku batek hartu ninduen, *Beste traste bat* esan zuen, eta gero ikusi ahal izan nuen bezala, itsasontzi handi batera bota ninduen. Jende pilo zegoen han, batetik bestera. Hilabete bat eman nuen itsasontzi haren ontzigainean, eta ekaitzak, bero izugarria eta haize bolada handiak jasan behar izan nituen.

Egun batean lurra ikusi nuen urrunean, eta poz-pozik jarri nintzen. Ordu bat geroago marinel batek hartu ninduen eta itsasontzitik jeitsi zen nirekin. Jarraian haur txiki baten eskuetan jarri ninduen. Gero, emakume batengana joan zen marinela, eta, besarkatu ondoren, auto batera igo ziren hirurak. Hogei minutu eta gero, herri batera heldu ginen eta haurrak bere gelan utzi ninduen. Hiru egun geroago, berriro autora igo ninduen haurrak eta autoan ordubetez ibili eta gero hiri handi batera iritsi ginen laurok (haurra, marinela, emakumea eta ni). Autobus geltoki batean utzi ninduen haurrak ahaztuta ordea.

Hotz ikaragarria pasa nuen, eta goiz aldera eguzkia irten baino pixka bat lehenago, mutil gazte batek hartu ninduen (mozkortuta zegoela uste dut) eta bere apartamentu txiki eta izugarri desordenatura eraman ninduen. Bi egun igaro ondoren etxe hartatik atera ninduen, eta ikastetxe batera eraman. Neskak batzuk zeuden polikiroldegia barruan, nire zain eta mutil gaztearen zain."

Orain institutu bateko baloi xume eta bat naiz. Batzuek pentsatuko duzue oso amaiera penagarria dela, lehenago Michael Jordanen eskuetan egon den baloi batentzat, baina nire iritzia guztiz kontrakoa da: ederra da hemengo saskibaloiko baloiak ezagutzea, eta are ederragoa da saskibaloian afizioagatik jolasten duten neska gazte batzuen baloia izatea, eta ez, gehienbat, diruarengatik jolasten duten gizon famatu eta handi batzuen izatea.

Leire Martinez de Marigorta, 1.maila F

3. testua



NAPOLEONEN HERIOTZAZ

Napoleonen heriotzaren arrazoia misterio bat da. Hainbat teoria garatu dituzte zientzialariek, esaterako, artsenikoarekin pozoitu zutela, edota botika gehiegi hartzeagatik hil zela. Zuricheko (Suitza) Unibertsitateko zientzialari batzuek, ordea, beste teoria bat aurkeztu dute.

Napoleonek bere azken sei urteetan erabilitako prakak aztertu ondoren, eta guztira 12 praka aztertu zituzten, handienek 110 zentimetro zituztela ikusi zuten, eta hil aurretik erabilitakoek, ordea, 98 zentimetro. Napoleonek pisu asko galdu zuen denbora gutxian, minbizia duten gaixoen antzera (sei hilabetetan 15 kilo galdu zituen).

Ikerlarien ustez, horrek frogatzen du Napoleon urdaileko minbiziak jota hil zela. Bestalde, artsenikoaren teoriari buruz (Napoleonen ileetan artsenikoa topatu zen) azalpen hauek eman dituzte: antza denez, Napoleonek oso gustuko zuen ardoa, eta garai hartako ardogileek artsenikoarekin garbitzen zituzten upelak.


Aizu! , 2005eko ekaina

BEHAKETA-TXANTILLOIA			
HELBURUA	1. testua	2. testua	3. testua
Informazioa ematea eta entreteneztea			
Informazioa ematea eta ulertaraztea			
Jasotzailea konbentzitzea			
EZAUGARRIAK			
1. pertsonan idatzia			
3. pertsonan idatzia			
1. eta 2. pertsonan idatzia			
Hitz teknikoak			
Igorlea eta hartzailearen arteko dialogoa			
Tonu subjektiboa			
...			
TESTU-TIPOA			


2. jarduera. Argumentatzea, zer da?

Argumentatzea zer den gaztelaniako unitatean ikusi duzue dagoeneko. Han duzuen kontzeptu-maparen antzekoa dugu honako hau. Gaztelaniaz ikasi dituzuen oinarritzko kontzeptuak gogoratuko dituzue orain, eta argumentazioari lotutako euskarazko terminologia ikasiko duzue, unitatean zehar askotan agertu eta oso argi izan beharreko hitzak baitira.

Taldeka, jarri honako eskema honetan azpiko etiketetan dituzun hitzak:



Orain kontzeptu-mapako hitz batzuen esanahia aztertuko duzue. Horretarako hiru iragarki (bata gaztelaniaz, bestea euskaraz eta hirugarrena ingelesez) ikusiko dituzue eta gero, taldeka, galdera hauexek arrazoiak adieraziz erantzungo dituzue:



- Zeinetan/zeintzuetan ematen ditu igorleak arrazoiak nor edo nor konbentzitzeko?
- Zeinetan/zeintzuetan ematen ditu igorleak arrazoiak nor edo nor limurtzeko?
- Zeinetan/zeintzuetan ematen ditu igorleak arrazoiak nor edo nori zer edo zertarako asmoa kentzeko?
- Zeinetan/zeintzuetan erabiltzen ditu igorleak bere tesia baieztatzeko argudioak?
- Zeinetan/zeintzuetan erabiltzen ditu igorleak beste baten tesia ezeztatze argudioak?

BIDEOAK:



Pascual o zumo natural



Erabili bizikleta



Drugs and lies

Iragarkia argudio-genero
mota bat da


3. jarduera. Argudio-testuak aztertzen.

Narrazio-testuak eta azalpen-testuak idaztea ez da hain zaila, baina argudio-testuak idaztea ez zaigu erraza egiten. Zergatik? Bada, argudio-testu on batek iritzi argi eta ondo zehaztua idaztea eskatzen duelako, horrek batzuen alde jartzea edota beste batzuen aurka jartzea eskatzen du, eta askotan ez dugu inoren alde jarri nahi izaten. Hori dela eta, gure argumentazioaren egitura nahasia izaten da eta ez dugu lortzen ezer komunikatzerik.



Bakarka, irakurri honako testu hauek eta bete ondoren duzuen kontrol-
taulatxoa.

4. testua



Ehiza, hiztegiak dioenez, animaliak atzematea edo hiltzea helburu duen jarduera da. Ehiztariek, hizkuntza gehiago zainduz, ehiza kirol noblea dela diote, eta Naturaren miresle, maitale eta aldeko aitortzen dute euren burua. Gauzak horrela, galderra bat luza nahi nieke ehiza zale guztiei: Eman diezaiokegu "kirol" izena izakien sufrimendua eta heriotza dakarren jarduera bati?

Natura eta beraren gozamena gizaki guztiena da, eta ez soilik batzuenak. Animaliak hiltzean, besteoi animalia horiek bizirik ikusteko, beren agerreraz gozatze-ko, eta, ikusi ez arren, basoan badirela pentsatzen dugun pozerako eskubidea zapaltzen digute ehiztariek. Gainera, ehiztariek naturaren aurrean azaltzen duten jabetza lapurretazkoa da, animalia hil eta beraientzat gordetzen baitute.

Egia da, lizentzia bat ordainduz, legeak ehizarako eskubidea ematen diela ehiztariei. Baina astakeria deritzat arrazoi hori euren alde erabiltzeari. Ez dezagun ahatz legeak dioten guztia ez dela beti zilegi izaten. Erromatarren garaian, adibidez, gladiadoreen arteko borroka hilgarriak legezkoak ziren, duela gutxi arte esklabismoa ere leku askotan legezkoa zen bezalaxe, baina hala ere jende askok zekien ez zegoela horretarako eskubiderik.

Aspaldiko garaietan bizitzeko beharrak bultzatzen zuen gizakia ehiza egitera, horri esker jaten baitzuen. Gaur egungo ehiza, ordea, erabat bestelakoa da. Janaria lortzeko betekizun zahar hura jadanik ez dago. Animalien atzetik joan eta beraiek hiltzeko atsegin berezi —eta zergatik hitz egokiaz ez esan— sadikoak bultzatzen du soilik egungo ehiza.

Eta horren guztiaren aurrean, norberaren plazerra lortzeko beste izaki bizien sufrimendu eta heriotza dakarren "kirol" hori giza ikuspuntutik zilegi eta moral ote den galdetzeko ordua dugu guztiok, legezkoa, hau da, lege zaharkitu eta zentzugabe batzuen barrukoa bada ere.

KINTANA, Xabier, Habe, 1989 (Egokitua)

<http://www.elkarlanean.com/ostadar/ostadar2-euskara-literatura-2ud.pdf>


5. testua

ETORKINAK ESPAINIAN

Jendeak etorkinei buruz iritzi desberdinak ditu. Batzuk esaten dute etorkinak Espainiara etortzen direla guri dirua kentzera eta lapurreta egitera, beste batzuk ordea, lana aurkitzera gero bere familia mantentzeko.

Iritzi horiek oso desberdinak dira, baina biak egia esaten dute. Etorkin batzuk txalupetan etortzen dira, baina beste batzuek hiltzen dira ahaleginean. Gehienak, Kanariar Uharteetan lehorteratu egiten dira. Gurutze Gorrikoak zaindu eta sendatzen dituzte, batzuk Espainian geratzen dira, beste batzuk bere herrialdetara atzera bidaltzen dituzte.

Egon dira arrazismo kasu asko, arrazista den jendea etorkinak hiltzen dituzte beste herrialdetakoak direlako. Nik hori txarto ikusten dut, zeren arrazistak ez dute ikusten etorkinak pasatzen ari dutena: morroitzat hartzen dituzte lan egiteko, lan egiten eta ezer gutxi kobratzen, etab.



Argazki honetan ikusten da etorkin bat kalean CD-ak eta gerrikoak saltzen.

Etorkinak bere herrialdera berriro joateko, pasaporte behar dute, eta izugarritzko ilarak egin behar dituzte dokumentuak eskuratzeko. Batzuk ezin dute, ez dutelako lanik egiten eta beste batzuk suertez lortzen dute.

Esan nahi dudana, etorkinak ez direla guk ikusten ditugun bezala, batzuk ondo egiten dute bere bizimodua.

Ibaizabal BHI DBH 3 ikasleen iritziak

KONTROL-ZERRENDAA	4. testua	5. testua
• Jasotzailea konbentzitzeko xede argia du testuak		
• Egitura argia du: sarrera (tesia), gorputza (tesiaren argudiaketa) eta konklusioa.		
• Testuaren tesia argi dago		
• Tesiaren aldeko argudioak argi eta ondo garatuta daude		
• Kontrako tesia ezeztatzeko argudioak ondo erabiltzen ditu		
• Paragrafo bakoitzak ideia bakarra garatzen du		
• ...		
TESTU HAU ARGUDIO-TESTU EGOKIA DELA USTE DUZUE?		

Argudio-testu batek **irakurterreza eta ulergarria** izan behar du; horretarako igorlearen iritzia argi eta garbi adierazi behar du, baita iritzi hori defendatzeko argudioak ere.

Ikus ezazue nolako egitura duen ehizari buruzko testuak. Egin al dezakezue honelako banaketarik *Etorkinak Espainian* testuan?

Testuaren sarreran gaia aurkezten du eta harekiko igorlearen tesia: eman al diezaiokegu kirol izena izakien heriotza dakarren jarduera bati?

Tesia defendatzeko argudioak eta kontra-argudioak:

Tesiarekin bat datorren konklusioa aurkezten du: sufrimendua eta heriotza dakarrenez, ehiza giza ikuspuntutik ez da bidezkoa.

Ehiza, hiztegiak dioenez, animaliak atzematea edo hiltzea helburu duen jarduera da. Ehiztariek, hizkuntza gehiago zainduz, ehiza kirol noblea dela diote, eta Naturaren miresle, maitale eta aldeko aitortzen dute euren burua. Gauzak horrela, galderra bat luza nahi nieke ehiza zale guztiei: Eman diezaiokegu "kirol" izena izakien sufrimendua eta heriotza dakarren jarduera bati?

Natura eta beraren gozamena gizaki guztiena da, eta ez soilik batzuenak. Animaliak hiltzean, besteoi animalia horiek bizirik ikusteko, beren agerrera gozatzen, eta, ikusi ez arren, basoan badirela pentsatzen dugun pozerako eskubidea zapaltzen digute ehiztariek. Gainera, ehiztariek naturaren aurrean azaltzen duten jabetza lapurretazkoa da, animalia hil eta beraientzat gordetzen baitute.

Egia da, lizentzia bat ordainduz, legeak ehizarako eskubidea ematen diela ehiztariei. Baina astakeria deritzat arrazoi hori euren alde erabiltzeari. Ez dezagun ahatz legeak dioten guztia ez dela beti zilegi izaten. Erromatarren garaian, adibidez, gladiadoreen arteko borroka hilgarriak legezkoak ziren, duela gutxi arte esklabismoa ere leku askotan legezkoa zen bezalaxe, baina hala ere jende askok zekien ez zegoela horretarako eskubiderik.

Aspaldiko garaietan bizitzeko beharrak bultzatzen zuen gizakia ehiza egitera, horri esker jaten baitzuen. Gaur egungo ehiza, ordea, erabat bestelakoa da. Janaria lortzeko betekizun zahar hura jadanik ez dago. Animalien atzetik joan eta beraiek hiltzeko atsegin berezi —eta zergatik hitz egokiaz ez esan— sadikoak bultzatzen du soilik egungo ehiza.

Eta horren guztiaren aurrean, norberaren plazerra lortzeko beste izaki bizien sufrimendu eta heriotza dakarren "kirol" hori giza ikuspuntutik zilegi eta moral ote den galdetzeko ordua dugu guztiok, legezkoa, hau da, lege zaharkitu eta zentzugabe batzuen barrukoa bada ere.

KINTANA, Xabier, Habe, 1989 (Egokitua)

Hauxe ikasi dugu sekuentzia honetan:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

2. LAN-SEKUENTZIA TESIA ETA ARGUDIOAK

Lehenengo sekuentzian ikusi duzuenez,

Gai bati buruz, nork bere tesi edo iritzia defendatzeko (eta beste bat/batzuenak baztertzeko) helburuarekin idazten den testua da **ARGUDIO-TESTUA**. Testu-tipo honen ezaugarri nagusia subjektibotasuna da, eta baliabideak, berriz, *tesia* bera eta *argudioak* dira.

4. jarduera. Zer defendatuko dugu?

Argudio-testuaren helburua betetzeko (norbait zerbaitez konbentzitzeko) igorlearen iritzia zein den argi geratu behar da, hori izango baitu igorleak hartzaileari transmititu beharrekoa. Hori dela eta, gure tesiak ondo eraikitzen jakitea oso garrantzitsua da.

TESIA

Igorleak gaiari buruz daukan iritzia edo ikuspuntuaren adierazpena da. Tesia adierazteko baiezko esaldi osoak erabiltzen dira, non argumentazioaren hitz-gakoak agertzen diren. Esaldiak argiak, zuzenak eta testuan erraz ikusteko modukoak izan behar dira.

Taldeka, gaia eta tesia bereizteko irakurri honako iritziz hauek eta erantzun koadroan dituzun galderei.

6. testua



Zalantzarik gabe ezinbestekoa da gaur egun. Erosotasunean bizi gara eta eskuko telefonoak hori eskaintzen digu. Jarriz gero, moldatuko nintzateke batere gabe, baina, kontua da moldatzea bakarrik nahikoa zaidan. Niri oso arraroa egingo litzaidake eskuko telefonorik gabe ibiltzea, maila guztietan, ordea. Lanean, adibidez, askotan kanpora joan behar izaten dut makinak konpontzera eta enpresarekin harremanetan egoteko behar-beharrezkoa dut.

7. testua



Gauza askotarako oso ondo dator sakelakoa edukitzea. Ni horren alde nago. Nire lagun guztiek badaukate eta oso eroso egiten zaigu askotan gure artean geratzeko, lagunak non dauden jakiteko... Gainera, asko ikasle-etxeetan bizi gara eta normalean ez da telefonorik izaten, horregatik, elkarrekin komunikatzeko primeran etortzen zaigu. Nere ingurukoek eta nik, mezuak bidaltzeko edota deiak egiteko erabiltzen dugu, batez ere.

8. testua




Nik uste dut engainu hutsa dela. Nik neuk ez dut sekula izan eskuko telefonorik. Deitzeko beharra izaten dudanean beti daukat bestelako telefonoren bat eskura, finkoa esan nahi dut, lanean, etxean, kalean, tabernetan... Telekomunikazio-konpainiek euren burua aberasteko asmatutako modu erraza eta zitala iruditzen zait, jendearen lepotik dirutza egiten ari baitira, zertarako, eta bost minutu barru ikusiko duzun lagunari mezua bidaltzeko edo alferrikako dei bat egiteko.

www.ikasbil.net

	Zein da gaia?	Zein da tesia?
6. testua		
7. testua		
8. testua		

Taldeka, honako txantiloia honetan agertzen den gai bakoitzari dagozkion tesietatik bat idatzi. Lehenengo, erabaki ea zuen iritzia aldekoa edo kontrakoa den; eta gero, idatzi iritzi horrekin bat datorren tesia. Zaindu hizkuntzaren zuzentasuna (ortografia, ondo egituraturako esaldiak...) tesia idazterakoan.

GAIA	JARRERA (aldekoa/kontrakoa)	TESIA
Isunak oinezkoentzat	Aldekoa	"Arau-hausleek bere jokabidearen ondorioz sortutako arriskuen arabera isuna ordaindu behar dute"
Derrigorrezko hezkuntza 14 urtera arte jaistea		
Inderkeriaz beteriko bideo-jokoen debekua		
Milanen, droga-testak gurasoentzat seme-alabak kontrolatzeko		
Lagundutako suizidioa		



5. jarduera. Gure argudioak, zeintzuk dira?

Nahiz eta tesia argia izan eta ondo formulatuta egon, ez da nahikoa. Tesiak ondo eraikitako argudioen babesa behar du eraginkorra izateko.

ARGUDIOAK

Argudioak igorleak bere tesiaren alde, hau da tesia indartzeko, ematen dituen arrazoiak dira.

Eraginkorrak izan daitezen arretaz aukeratuak izan behar dira eta ondo adierazita egon behar dira; horrela ez balitz, gerta liteke tesia baliogabetzea.

Argudioak garatzea komeni da (argudio bakoitzak bigarren mailako ideietan adarkatu daiteke) eta garrantziaren arabera sailkatzea.

5.1. Zenbat argudio eman dezakezue 4. jardueran idatzi dituzuen tesiak indartzeko? Idatzi taulan. Ondoren, azaldu alboko taldekoei defendatzen dituzuen tesiak eta horretarako erabilitako argudioak; gero, horiek argudioak baliokoak diren ala ez eta zergatik esan behar dute. Amaitzeko, zuek alboko taldekoen argudioak aztertuko dituzue.

GAIA	ARGUDIOAK	Baliozkoak? Zergatik?
Isunak oiezkoentzat		
Derrigorrezko hezkuntza 16 urtera arte		
Inderkeriaz beteriko bideo-jokoen debekua		
Seme-alabak kontrolatzeko droga-testak gurasoentzat		
Lagundutako suizidioa		



www.zarautzagenda.tk



Gaztelaniako unitatean ikusi duzuenez argumentatzeko era ezberdinak daude: batzuek argudio afektibo-emotiboak erabiliko dituzte; beste batzuek, berriz, arrazoizko argudioak.

Nahiz eta argudio afektibo-emotiboak oso eraginkorrak izan, argudiaketa objektiboan horiek baino hobeto oinarritutako argudioak erabili behar dituzue. Hona hemen horietako batzuk eta euren definizioak.

5.2. Bakarka, jarri definizio bakoitzari dagokion argudio-motaren izena. Ondoren, zuen taldekideekin bateratu eta arrazoitu zuen aukeraketaren zergatia.

Defendatzen ari garenaren antzeko iritzia duten ikerlariek, adituek eta sinesgarriak diren erakundeek esandakoak biltzen dira bertan.

Gure gizarteak modu zabalean onartzen duen ideia defendatzen da (gehiengoa oker ez dagoela suposatuta, eta horrek sarritan topikoak formulatzera garamatza) edo gizarteak baliozkoak onartu dituen jakintzak (aurreuposizioak).

Gertakari beten arrazoiak aurkezten dira, kausak egiaztatuta (nolabaiteko zorrotasun zientifikoa behar dute).

Bere esperientziak jartzen ditu arrazoi edo argudio gisa hartzaileak. (Ez da zorrotzegia, eta partziala izateko joera ere badu).

Gertaerak, pasadizoak, arazo partikularrak... kontatzen ditu argudioa eraikitzeke.

Hartzailea hunkitzeko moduko baliabideak erabiltzen ditu igorleak, errukia, ongura, eta abar, eragiten duten sentimenduzko efektuak baliatuta.

Konparazioa edo metafora oinarrian duela osatzen den argudioa: adibideak emateko era honekin arrazoitu nahi den antzeko kasu bati egiten zaio erreferentzia.

ESPERIENTZIA PERTSONALAREN ARGUDIOA

AUTORITATE-ARGUDIOA

ARGUDIO AFEKTIBO-EMOTIBOA

ADIBIDEEN BIDEZKO ARGUDIOA

ANALOGIAZKO ARGUDIOA

KAUSA-ERAGINAREN ARGUDIOA

TRADIZIOAREN ARGUDIOA

5.3. Taldeka, argudio-motak errepasatu ondoren, eman dagokion izena honako adibide hauei.

Antzerkia, ikuskizunaz gain, norberaren ikaskuntzarako bitarteko eraginkorra dela esan dezaket. Antzerki-zaletasunak eragin zituen nire ezagutzetako asko.

Errepideetako ezbehar-kopurua gero eta gehiago hazten ari da alkoholaren gehiegizko kontsumoa, gidatze ausartegia, eta aurreratze okerrak tarteko, eta erraz asko froga daiteke hori.

Krisialdietan normala da lanpostu gutxiak gizonei esleitzea, betidanik izan baitira familiaren sostengua.

Green Peace-k dioenez, Frantziako gobernuak Mururoan egiten ari den probak ingurumenerako eraso itzulezinak dira.

Ur asko alferrik galduta bainatzen gara gure gizartean; hirugarren munduko familia batek bere premiak bete ahal izango lituzke ur horrekin.



6. jarduera. Arrazoi guztiek balio al dute?

Argudiaketarako erabil daitezkeen arrazoi edo argudio guztiek ez dute sendotasun bera. Aurreko jardueran ikusi dituzuenak sinesgarritasun handiko argudioak dira, gertaeretan eta egiazkoa den edo egiazta daitezkeen informazioan oinarrituta baitaude. Baina, horrela ez denean zer?

6.1. Taldeka, irakurri honako koadrotxoetan dauden argudio hauek, eta erabaki zuentzako baliozkoak diren ala ez. Zuen erabakiaren zergatiak adierazi.

1. Edatea ez da hain txarra!
Auzokideak botila bat ardo
edaten zuen egunero eta 100
urtera heldu zen.

2. Zentral nuklearren aurkakoak
sasiekologistak dira: uste handi
eta jakinduria gutxi.

3. Mesedez, ez jarri isunik! Bi ume
txiki ditut eta langabezian nago.

4. Ez pasa inoiz aldamio baten
azpitik, zoritxarra besterik ez dakar
eta! Lehengoan gazte bat pasa zen,
eta arratsaldean orkatila bihurrituta
eraman zuten ospitalera.

5. Athletiko kapitainak
negutegi efektuarena
asmakeri hutsa dela dio,
eta arrazoi osoa du.

1. BAI/EZ	Zergatik?	_____

2. BAI/EZ	Zergatik?	_____

3. BAI/EZ	Zergatik?	_____

4. BAI/EZ	Zergatik?	_____

5. BAI/EZ	Zergatik?	_____

6.2. Orain, argudio bakoitzaren azpian dagoen arrazoia aztertuko duzue. Lehenengo, lotu azpian dagoen ideia argudioarekin eta esan orain baliozkoa den ala ez.

AZPIAN DAGOEN IDEIA	ZENBAKIA	BALIOZKOA
a. Goizean aldamio baten azpitik pasa zelako bihurtu zuen orkatila gazteak.		
b. Athletiko kapitaina denez esaten duen guztia egia da.		
c. Bi ume ditudalako eta langabezian nagoelako ez dut merezi isunik.		
d. Auzokidea luze bizi izan zenez alkohola ez da txarra.		
e. Zentral nuklearren aurka daudenak ez dakite ezer.		

Batzutan argudio desegokiak edo faltsuak erabiltzen ditugu, hau da, ez dute inondik ere egiaztatzen justifikatu nahi dugun hori. Mota honetako argudioei falazia deritzegu. Baina, zer da falazia? Inoiz entzun al duzue hitz hori?



6.3. Taldeka, irakurri falaziaren definizioa (gaztelaniaz) eta motak (euskaraz).

FALACIA

El Diccionario de la RAE define “falacia” del siguiente modo:

falacia. (Del lat. *fallaciā*).

1. f. Engaño, fraude o mentira con que se intenta dañar a alguien.
2. f. Hábito de emplear falsedades en daño ajeno.

En lingüística se entiende por falacia un razonamiento no válido o incorrecto pero con apariencia de correcto. Es un razonamiento engañoso o erróneo (falaz), pero que pretende ser convincente o persuasivo. Todas las falacias son razonamientos que vulneran alguna regla lógica.



Arrazoibidean eman daitezkeen akatsak

Arrazoibide zuzena egiteko, argudioak arrazoizko logikaren lekeen arabera izan behar dute. Orokorrean, lege horien menpe ez dauden bi argudio mota dago:

- **Argudio ez-zuzenak arrazoizko logika gaizki erabiltzearen ondorio dira:**
 - Partikularra dena maila orokorrean ezartzea.
 - Kausa-ondorio harreman faltsuak ezarri.
- **Argudio faltsuak arrazoizko logikatik at dauden limurtze erak dira.**
 - Hartzailearen sentimenduetara jotzea.
 - Igorlearen ospea erabiltzea.
 - Irain eginez .

Egokituta www.hiru.com



Irakurritakoa ondo ulertutakoan, irakaslearen laguntza behar baduzue eskatu, sailkatu aurreko ariketetan agertutako falaziak honako zerrenda honetan.

ARGUDIO EZ ZUZENAK EDO FALTSUAK	MOTA
Athletiko kapitainak negutegi efektuarena asmakeri hutsa dela dio, eta arrazoi osoa du.	
Ez pasa inoiz aldamio baten azpitik, zoritxarra besterik ez dakar eta! Lehengoan gazte bat pasa zen, eta arratsaldean orkatila bihurrituta eraman zuten hospitalera.	
Mesedez, ez jarri isunik! Bi ume txiki ditut eta langabezian nago.	
Edatea ez da hain txarra! Auzokideak botela bat ardo edaten zuen egunero eta 100 urtera heldu zen.	
Zentral nuklearren aurkakoak sasiekologistak dira: uste handi eta jakinduria gutxi.	
...	

6.4. Bilatu argudio desegokiak edo faltsuak hemerrotekako edo etxeko egunkarietan, begiratu euskaraz edo gaztelaniaz daudenetan, edota baita beste hizkuntzetan dauden egunkarietan ere.



7. jarduera. Argudioei aurre egiten.


Honezkero konturatuko zineten batzuentzat onargarria eta objektiboa den argudioa beste batzuen ustez ahula eta baliogabea izan daitekeela, beti gaiari buruz daukagun iritziaren arabera.

Gai bati buruz aldeko eta kontrako jarrera eta argudioak daudela konturatzeko nahiko izango duzue gaurkotasuna duen edozein gai aukeratu eta iritziak ematen hastea.



7.1. Taldeka, irakurri hurrengo orrialdean duzuen gaztetxeei buruzko testua (8. testua) eta ondoren, gaztetxeen aldeko eta kontrako argudioak zerrendatu honako koadro honetan.

ALDEKO ARGUDIOAK	KONTRAKO ARGUDIOAK



8. testua

GAZTETXEAK

Gaztetxeak desalojatzea ongi iruditzen zaizue?

Niri ez, aktibitate asko egiten baitugu han.

Jendeak pentsatzen du gazteak ez dugula egoteko lekurik behar. Nik, aldiz, pentsatzen dut gazteak egoteko lekuak behar ditugula, gure denbora librean, gure aktibitateak egin nahi baititugu, gaztetxetan egoteko aukera izan behar dugu. Azkeneko San Ferminetan, esaterako, Euskal jai gaztetxean jendea hor gelditzen zen; hortaz, gazteek bagenuen leku bat egoteko.

Gaur egungo gaztetxeak desalojatzea ongi iruditzen zaiela esaten du jendeak. Nik, aldiz, pentsatzen dut gaztetxeak desalojatu beharrean, udaletxeak lokalak eman beharko zizkigutela. Gazteek ez baitute lokalik egoteko. Orain dela aste batzuk, esaterako, Iturramako tximista gaztetxea desalojatu zuten; hortaz, Iturramako gazteria oraindik lokalik gabe dago bere aktibitateak egiteko.

Jendeak gaztetxeak ilegalak direla esaten du. Nik, aldiz, legalak direla pentsatzen dut okupatutako etxeak ez baitzeuden jendeztatuak. Iturramako gazteek "Sancho el Fuerte" kalean zegoen jende gabeko etxea okupatu zuten. Handik eta 5 hilabetera polizia espainolak eta Simon Santamariaren gizonak tximista gaztetxean sartu eta desalojatu egin zuten.

Jendeak gaztetxetan dauden pertsonak yonkiak direla pentsatzen du. Nik, berriz, pertsona normalak direla pentsatzen dut, gaztetxetan dauden pertsonak lanean dabilta; hortaz bakarrik bere denbora libretan joaten dira gaztetxeetara bere aktibitateak egiteko.

Jendeak esaten du gaztetxeak euskaldunak izateagatik desalojatzen dituztela. Nik, aldiz, pentsatzen dut euskaldunak izateagatik, gure denbora librean gauza asko egiten dugulako bertan eta oso ondo pasatzen dugulako desalojatzen dituztela; esate baterako Errotxapeako Irule gaztetxean, aktibitate asko egiten ziren zinea, txalaparta, esku pilota, kontzertuak eta abar, ondorioz jendeak oso ondo pasatzen zuen.

Hori guztia dela eta, argi dago gazteek leku apropos bat behar dugula aktibitateak egiteko, horregatik udaletxeari lokal apropos bat emateko eta dauden gaztetxeak ez desalojatzea eskatzen diogu, baina udaletxeak ez digu lokalik ematen eta daudenak desalojatzen ari da.

www.pnte.cfnavarra.es



Eta zuek, gaztetxeen alde ala kontra zaudete?



KONTRA

ALDE

7.2. Seiko taldean, mahai-ingurua prestatuko duzue (gogoratu gaztelaniako unitatean orain arte ikasitakoa). Beharrezko izango da taldean batzuk gaztetxeen alde eta beste batzuk kontra egotea, bestela ez da eztabaidarik sortuko. Jarraitu prozedura.

PROZEDURA

- Erabaki alde edo kontra zauden eta hausnarketa egin.
- Aukeratu zure iritzia defendatzeko argudio egokiak, posible bada 5. jardueran ikusi dituzun argudio-motetatik adibide bat asmatu (kontuz argudio afektibo-emotiboekin).
- Aurreikusi kontrako iritzia dutenen argudioak zeintzuk izango daitezkeen eta kontra-argudiatzeko prestatu.
- Praktikatuz zure albokoarekin: azaldu zein den zure tesia eta hori defendatzeko argudioak eta kontrako iritzia dutenen argudioak desegiten ahalegindu; amaitutakoan, entzun bere argudiaketa.
- Seiko taldean jarri, erabaki hitz egiteko ordena eta bakoitzaren txanda errespetatu.
- Entzun arretaz zuen mahaikideek diotena eta posible bada zuen argudiaketan erabili.
- Talde batek beste talde bateko mahai-ingurua behatu eta ebaluatuko du.



MAHAI-INGURUKO JARDUNA KONTROLATZEKO FITXA	Kidearen jarduna	Iradokizunak
Gaztetxeen kontrako jarrera du.		
Argudiaketan tesia argi eta garbi antzematen da.		
Era askotako eta ondo oinarritutako argudioak erabili ditu.		
Argudiaketan arazoak ikusi ditu (argudioak ez direla arrazoizko logikaren arabera edo argudio afektibo-emotiboen erabilera).		
Besteek erabilitako argudioak desegin ditu.		
Besteek hitz egin dutenean errespetuz entzuten egon da, euren azalpena ematen egon direnean ez ditu moztu.		
Txandaren zain egon da eta/edo hitza eskatu du behar izan duenean.		
Begiak hartzaileei begira mantendu ditu, eta konfiantzaz hitz egiten du.		
Eskuekin eta besoekin egindako keinuak egokiak dira.		
Ondo eta argi ahoskatu du.		
Ahots-doinua eta intonazioa egokiak dira.		
...		
Egindako argudiaketa ona iruditu zait.		



8. jarduera. Zuen tesiak eta argudioak, zeintzuk dira?

Pentsatu al dituzue zuen azken ekoizpenetako -mahai-ingurua eta kexa-gutuna- tesiak zeintzuk izango diren eta horiek indartzeko erabiliko dituzuen argudioak zeintzuk izango diren? Oraintxe duzue horretarako aukera.



Hiruko taldean, 7. jarduerako prozedurari jarraituz erabaki azken ekoizpenetarako tesiak eta argudioak.

MAHAI-INGURUA				
KEXA-GUTUNA				
	GAIA	JARRERA (aldekoa/kontrakoa)	TESIA	ARGUDIOAK

3. LAN-SEKUENTZIA KEXA-GUTUNA, NORENTZAT?

Jadanik argudio-testua aztertu eta beraren ezaugarriak behinena ikusi dituzue. Baina, ez da gauza bera lagunartean argudiatzea edo hedabideetan argudiatzea. Hori dela eta, lan-sekuentzia honetan zuen ekoizpenaren erabilpen-eremuari lotutako ezaugarri nagusienak aztertu eta landuko dituzue. Kontuan izan idatziko duzuen kexa-gutuna erakunde edo hedabide bati zuzenduta egongo dela, eta ondorioz komunikazio-egoera horri lotutako arauak ezagutu eta erabili beharko dituzuela.

9. jarduera. Testuaren egokitasuna.

Testua hartzaileari egokitu behar zaio; horretarako, kontuan hartzen da testuinguru jakin bateko gizarte arauak hizkuntzan duten eragina eta hartzailea nor izango den; horrela, erregistro egokia erabiltzea lortuko baitugu.

9.1. Taldeka, esan nori zuzenduta dagoen iragarki bakoitza. Iragarki hauetako hizkuntza formala dela uste duzue? Noiz erabili behar da erregistro formala eta noiz informala?



1 iragarkia



3. iragarkia



2. iragarkia

Nori zuzenduta?

1.
2.
3.

9.2. Taldeka erabaki nortzuk izan daitezkeen eta zer nolako harremana edota rola duten testu hauen igorleek eta hartzaileek.

Aizu, eman areto nagusiko giltza. Ez galdetu zertarako den, ze ez daukat ideia koxkorrik. Matematikako agureak bidali nau giltzatan.

Egun on, barkatu. Matematikako irakasleak bidali nau, eta esan dit areto nagusiko giltzak eskatzeko. Dokumental bat ikusi behar dugu, antza, eta niri eskatu dit giltzatan etorteko.

Eskoriatzan uztailaren 22tik abuztuaren 15era arte egingo dudan argazki erakusketaren inauguraziora etor zaitezen gonbidatzen zaitut. Erakusketaren inaugurazioa Kultura Etxeko aretoan izango da uztailaren 22an, arratsaldeko 7etan.


Egun horretan gure artean izango zarelakoan, eskerrik asko,

Pentsatzen neban ez zala inoiz ailegatuko, baina bai! Azkenian, 18 urte, mundua jateko ate guztixak zabalik! Eta gosia asetzeko, zapatuan bazkarixa (14:00). Lagunduko didazu kandelak amatatzen, ezta? Asier.

Iepa, Gibell! Idazten ez nizula-eta, estu egongo zinen honezkero, ezta? Zelan zabilta ba? Ni lako ondo? Hau kristona da...

Kaixo lagun maitia. Azkenean badut betarik aspaldi igorri behar nizkizun eleak eskribitzeko. Ez zenuen halakoik espero, ezta? Ba, abagune xarmagarri honetaz aprobetxau gura nuke ene esperientzia 'super' honen nondik norakoak kontatzeko...

Ekar ezazue honako taulara, alde batetik, erregistro informalekotzat, eta beste alde batetik, erregistro formalekotzat jo daitekeen lexikoa (hitzak eta esapideak). Saia zaitetze antzeko esanahia duten beste hitz batzuk asmatzen.



ERREGISTRO INFORMALEKO ADIERAZLEAK	ERREGISTRO FORMALEKO ADIERAZLEAK
Ba al dago erregistro-nahasterik duen txatalik?	

Komunikazio-egoeraren ezaugarrien arabera (gaztelaniako *Actividad 4-n* ere aztertuko duzuen legez), hizkera modu bat (erregistro bat) aukeratu beharko du igorleak. Izan ere, ezin daiteke berdin hitz egin koadrilarekin kalean, edo medikuarenean; lagun arteko epostetan, edo administrazio gutunetan. Ziur irakasleak ere ez duela berdin hitz egiten zuekin eta beste irakasleekin edota etxekoekin.

Egoki idaztea eta mintzatzea hauxe da: komunikazio-ekintza bakoitzera moldatzea eta ekoitzitako diskurtsoa bere helbururako eraginkorra izatea lortzea. Egokitasun hori lortzeko kontuan izan behar duzue komunikazio-egoera (hartzailea, hartzailearekiko harremana, tokia, unea, asmoa...)

Zuen kexa-gutunaren erregistroa nolakoa izan beharko da?

ERREGISTRO _____

ERREGISTRO NAHASTE-BORRASTERIK EZ!

10. jarduera. Egokitasuna eta gutunaren atalak.

9. testua

Yang Huanyi andrea hil zen 98 urte zituela. Hamar urte lehenago, 1995ean, Pekinen burutu zen Nazio Batuen Konferentzian parte hartu zuen. Yang Huanyi nushu hizkuntzaren azken hiltuna zen eta bazekien hizkuntza debekatu hori berarekin hilko zela. Horregatik, 1995eko Pekingo Konferentzian, bere bizitza luzean nushu hizkuntzan idatzitako gutunak, poemak eta artikuluak adituei eman zizkien.

www.argia.com



M.P.R. kazetariari Yangkek egindako hitzaldiaren berri ailegatu zitzaionean, beregan nushu hizkuntzari buruzko interesa piztu zen. Horretaz erreportaia bat idatzi nahi zuenez, emakumeari gutun baten bidez elkarrizketa eskatu zion.

1997 ekaineko 17an
Gasteiz

Egunon emakumea.

Nire izena M.P.R. da eta kazetaria naiz eta zurekin berba egitea gustatuko litzaidake. Posible izango da zurekin elkarrizketa bat edukitzea?

1995ean Pekinen izandako konferentziaren berri jakin nuenetik, nushu hizkuntzari buruzko gauza asko aztertut. Badakit zu nushuaren azken hiltuna zarela eta prestatzen ari naizen erreportaia betetzeko, zuk horretaz dakizun guztia ezagutzea inportantea dela uste dut.

Azkenez, espero dut zurekin egotea eta edukiko dugun elkarrizketatik informazio interesgarria lortzea.

Pentsa ezazu.

M.P.R.k idatzitako gutunari egoki deritzozue? Gutunaren bi atal aztertuko ditugu: data eta agurrak (hasierakoa eta amaierakoa). Zenbat gauza aldatuko zenukete atal horietan?.


Data

Aldaketen proposamenak

Agertzen denean




Agertu beharko litzateke



Euskaltzaindiaren arauak

Tokia	Tokia adierazteko beti izen ofiziala erabili behar da: Vitoria-Gasteiz Donostia-San Sebastián Gernika-Lumo Bilbao (izen ofiziala <i>Bilbao</i>; baina deklinatzean: <i>Bilbon</i>, <i>Bilboko</i>...)
Data	Hauxe da Euskaltzaindiak data adierazteko gomendatzen duena: Gernika-Lumo, 2006ko martxoaren 7a Gernika-Lumon, 2006ko martxoaren 7an Horietaz gain, laburrago idazterik ere badago: Gernika-Lumo, 1995-03-07 Nolanahi ere, gogoratu urteetan barruko punturik ez dugula jarri behar.

Euskaltzaindiaren gomendioei jarraituz, zelan deklinatuko zenituzkete ondoko data hauek? Gehitu gutuna bidaliko duzun lekua.



Agurrak

Erabilitako hasierako eta bukaerako agurrak aproposak ikusten dituzue?


Bete honako taula hau.

Zure lagun mina izango balitz		90 urteko emakumea izango balitz	
Hasierako agurrak	Bukaerako agurrak	Hasierako agurrak	Bukaerako agurrak
-	-	-	-
-	-	-	-
-	-	-	-
-	-	-	-
-	-	-	-
-	-	-	-



Aurreko orriko taulan eta honako taula honetan dituzuen kortesiazko esapideak bat al datoz?

AGURRAK			
	Lagunartekoak	Formalak	Neutroak
Hasierako agurrak	Zer moduz? Bizi al haiz? Kaixo: Epa! XX maitea: Adiskide hori: Lagun hori:	(Agur) Jaun/Andre agurgarria: (Agur) Jaun/Andre argia: Jaun/Andere txit gorena: Jaun/Andre agurgarri hori: XX estimatua: (Agur) Jaun/Andre ohoregarria: (Agur) Jaun/Andre preziatua: Alkate Jaun/Andre agurgarria:	Jauna: Andrea: Jauna/Andrea: Jaun/ Andre hori:
Bukaerako agurrak	Besarkada handi bat Ondo segi Ondo izan eta ikusi arte Ongi izan eta hurrengora arte Agur eta goraintziak Oraingoz besterik ez Besterik ez Ikusi arte Har ezazu nire agurrik adiskidekorrena Ondo ibili Agur bero bat	Adeitasunez Jaso esazu nire agurrik beroena Begirunez Adeitasunez Beti zure esaneko Zure esanetara Mila esker zure laguntzagatik Aldez aurretik eskerrak emanez Har ezazu nire esker onaren eskermine Zure berri laster izango dugulakoan Gure eskaria kontuan hartuko duzulakoan	Agur t'erdi Mila esker zure laguntzagatik Besterik gabe, agur Zure zain geratzen gara Agurtzen zaitut Besterik gabe, agur Zure erantzunaren zain Zure erantzuna baiezkoa izango delakoan, agur t'erdi Har ezazu nire agurrik beroena Horrenbestez, agur



11. jarduera. Kexa-gutun formula, norentzat?

Erakunde bati zuzenduko diozue gutuna. Erakundeen izenak luzeak direnez eta askotan errepikatzen direnez **laburtzapenen** bidez ematen dira. Gizarteak adostatutako konbentzioak dira, identifikatzeko errazak. Baina, hizkuntza batetik bestera aldatu egiten dira.



11.1. Jarduera honetan, zenbait sigla eta horien esanahia hiru (edota lau) hizkuntzatan aztertuko dituzue. Jarraian agertzen den taulan, euskarako, gaztelaniako eta ingeleseko (edota frantseseko) zenbait sigla eta horien esanahia edo azpiko hitz-multzoa daude.

Taldeka, bete hutsuneak.



SIGLAK	SIGLAREN AZPIKO IZEN MULTZOA
OME	Osasunerako
OMS	 de la Salud
WHO	World Health Organization
OMS	Organisation Santé
EAE	Euskadiko
CAPV	Comunidad Autónoma del
.....	Autonomy of the Basque Country
EHU	
UPV	
.....	University of the Basque Country
NBE	Nazio
ONU	Organización de las
UN	United
ONU	 des Nations Unies

HIESA	Hartutako Inmuno-Eskasiaren
SIDA	Sindrome .de
AIDS	Adquired Deficiency
SIDA	Syndrome D'immunodéficience Acquise
NAN	Nortasun
DNI	 de Identidad
NIDC	National Identity Card
GKE	 Kanpoko
ONG	
NGO	Non-Governmental Organizations
ONG	 Gouvernamentales
AHT	Abiadura
TAV	Tren de
HST	High
TGV	Tain à Grand Vitesse

Aztertu siglen azpiko hitz-multzoak eta hizkuntzak erkatu.

Zein hizkuntzen artean ikusten
duzue alderik handiena?

Eta zein hizkuntzen artean
ikusten duzue alderik txikiena?




11.2. Orain, gutuna nori bidaliko diozuen erabaki behar duzue. Baina, eztabaidatzen hasi baino lehen, eztabaida-egoera batean, erdararen eraginez desegoki erabiltzen ditugun formak aztertuko dituzue. Zuen adineko ikasleei entzundakoak dira honako hauek.

Taldeka, saia zaitetze adierazpen desegoki bakoitzari erabilera egokia finkatzen.

DESEGOKIA	EGOKIA
Ez dakizu asi que isildu	
Nola irakaslea ez dagon, banoa	
Berandu nator,zergatik lo hartu dut	
Esan zergatik zure txanda da	
Ya que ez datorren goazen	
Dirudi hasarre zaudela	
Dirudi baietz	
Ordua da, asi que bagoaz	
Ez du pena merezi horregatik haserretzea	
Galderak erantzun ditut	
Horrelakorik ez du existitzen	
Eztabaidarekin amaitu nahi dut	
Zuei gonbidatzen dizuet	
Hainbat famili eraso dute.	
...	

Norbaitek zuzendu arren, ba al daukazue zuen hizkeran erroturik beste adierazpen desegokirik? Horrela bada sartu aurreko zerrendan.



11.3. Amaitzeko, taldeka, eztabaidatu eta erabaki nori bidaliko diozuen gutuna; horretarako, taldekide bakoitzak bi edo hiru proposamen botako ditu, gero, denen artean bat aukeratuko duzue. Ikaskide bakoitzak bere proposamenen aldeko argudio egokiak erabiliko ditu.



Nik uste dut...ela.
Nire ustez...
Niri iruditzen zait...
...-lako
...-nez gero
...-la eta

PROPOSATUTAKO ERAKUNDEAK

1. _____

Zergatik?

2. _____

Zergatik?

3. _____

Zergatik?

AUKERATUTAKO ERAKUNDEA

.....

4. LAN-SEKUENTZIA ARGUDIO-TESTUA IDATZIKO DUGU

Sekuentzia honetan, kexa-gutunaren gorputza izango den argudio-testua idatziko duzue. Dakizuenetz, testu on bat idaztea prozesu luzea da eta aurre planifikazio egokia behar du. Horrek lagunduko baitu testu koherentea eta ondo kohesionatua ekoizten. Gogoratu testuaren koherentziak eta kohesioak testuaren irakurgarritasuna eta ulergarritasuna bermatzen dituztela.

12. jarduera. Informazioa bilatu.

Dagoeneko erabakita duzue kexa-gutunaren gaia, tesia eta argudioak (9. jarduera). Orain, jarduera honetan zuen iritzia indartzeko informazioa bilduko duzue.

Taldeka, honako helbide elektronikoetara jo, zuen argudioak defendatzeko informazioa lortzeko. Beste unitatean egin duzuen legez, ateratako informazioa fitxetan antolatu eta datu guztiak karpeta batean jaso.

INFORMAZIO-BILKETA EGITEKO NORA JO

Euskaraz:

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala:

<http://www.unhchr.ch/udhr/lang/bsq.htm>

Kontsumitzaileen eskubideak:

<http://www.euskonews.com/0344zbbk/gaia34401eu.html>

Hirian, Giza Eskubideak babesten dituen Europako Karta:

<http://www.donostiagizaeskubideak.org/>

Gaztelera:

Haurren Eskubideen Deklarazioa:

http://www.unhchr.ch/spanish/html/menu3/b/25_sp.htm

Gazteen artean bakea, elkarrekiko errespetua eta herrien arteko elkar-ulertzea bultzatzeko deklarazioa:

http://www.unhchr.ch/spanish/html/menu3/b/65_sp.htm



13. jarduera. Gure argudio-testua.


Gogoratu oso lagungarria izango zaizuela testuaren gidoia egitea. Horrela, testuaren atalak eta egitura zehaztuko dituzue eta testuaren koherentziari eutsiko diozue.



Taldeka, egin zuen argudioaren gidoia, testuaren egituren arreta jarritz, gogoratu 3. jarduera, eta labur azaldu atal bakoitzean zertaz arituko zareten: tesia aipatzen, argudiatzen, kontra-argudiatzen...

Gero, irakasleari eskatu ikusteko eta iritzia emateko. Bere onespena duzuenean **hasi argudio-testua idazten**.

ARGUDIO-TESTUAREN GIDOIA




14. jarduera. Kohesio-elementuak.

Testuak idaztean, eta ahoz ekoizterakoan ere, diskurtsoaren elementuen kohesioa, hau da, ideiak bata bestearekin logikaz erlazionatu eta lotzea, ezinbestekoa da.

Horretarako, testu-antolatzaileak ondo erabiltzea derrigorrezkoa da. Hauek gaztelaniako *Actividad 8*-n ikusi dituzue.

Orain taldeka, beste talde batek 13. jardueran ekoiztutako testua hartu eta agertzen diren testu-antolatzaileak bilatu eta sailkatu zein bere koadrotxoan. Gero talde handian zuzendu eta gehitu beste taldeek aurkitu dituzten testu-antolatzaileak.



Antolatzaileen erabilera egokiak ortografiari lotutako ezagutza eskatzen du, hau da, koma non daramaten jakin behar da. Berrikusi aurreko jardueran idatzi duzuen testua. Antolatzaileetan, komaren erabilerari dagokionez, egin al duzue akatsik?

KOMAREN ERABILERA ANTOLATZAILEETAN

- Antolatzaile gehienak komaren bidez mugatzen dira testu idatzian.
 - Ondotik daramate koma perpausaren hasieran daudenean.
Gainera, hamahiru urte bete berriak ditu.
 - Alde bietan perpausaren tartekaturik doazenean.
Hamahiru urte bete berriak ditu, beraz, gazteegia da oraindik.
- Baina aldiz, ordea, hala ere eta izan ere antolatzaileak perpaus luze batean tartekaturik doazenean, aurreko perpausaren mugan puntu eta koma edo puntua jartzea eskatzen dute. Ez da egokia, adibidez, esaldi hau honela idaztea:
Zuretzat nahikoa izan daiteke behin bakarrik entzutea, nik, aldiz, gehiagotan entzun beharra daukat.
Honela, bai:
Zuretzat nahikoa izan daiteke behin bakarrik entzutea; nik, aldiz, gehiagotan entzun beharra daukat.
Zuretzat nahikoa izan daiteke behin bakarrik entzutea. Nik, aldiz, gehiagotan entzun beharra daukat.
- Bi perpaus baditugu eta-rekin eta baina-rekin lotuak, oro har, ez da komarik jartzen lokailu horiek mugatzeko. Baina jartzen ez bada ere, asko laguntzen du jartzeak. Jartzekotan, koma juntagailuaren aurrean jarri behar da, eta ez bigarren perpausaren barruko tokiren batean. Ez da egokia, adibidez, esaldi hau honela adieraztea:
Txandaka jokatuko dugu eta hori errespetatzen ez duena, kanporatuta geldituko da.
Honela, bai:
Txandaka jokatuko dugu, eta hori errespetatzen ez duena kanporatuta geldituko da.

ostadar2-euskara-literatura-2ud



15. jarduera. Modalizazio-markak.

Argudiaketa edo eztabaida batean ematen diren iritziaik subjektiboak, hau da, norberaren araberakoak, norberaren ikuspegiari edo usteari dagozkionak dira. Hori dela eta, esandakoari buruz igorlearen jarrerara islatzen duten adierazpenak erabiliko ditu igorleak, adierazpen hauek **modalizazio-markak** dira.

Taldeka, honako adierazpen hauek zer adierazteko balio duten erabaki eta sailkatu hurrengo orriko taulan. Beste adierazpenik bururatzen bazaizue hori ere idatzi.

(hau) defendatzea ulertezina da baliteke noski

seguruenez... ...ohiz kanpoko da ...esango nuke

...ez dago onartzerik dirudienez... jakina

...ezinbestekoa da ...harrigarri litzateke

nire aburuz... zalantzak ditut ...deritzot omen

(hau) esatea zentzugabekoa da argi eta garbi dago

(hau) pentsatzea kontraesana da

Iritzia	Desadostasuna	Zalantza

Adierazpenetan ikusi duzuen legez, aditzak ere modalizazio-markak dira, hitzunik adierazitakoari edo gertatutakoari buruz duen iritzia adierazten baitute.

Taldeka, erabaki hitzunik **ziurtasuna edo probabilitatea** adierazteko asmoa duen honako esaldi hauetan eta aztertu horretarako erabiltzen dituen aditzak:

ESALDIAK	Ziurtasuna/ Probabilitatea
✗ Norbaitek gezurra esan duelakoan nago ✗ Maitasunak pasiorik beroenak eta gorrotorik sakonenak eragin ditzake. ✗ Garraiobide publikoen indartzea ezinbesteko neurria da trafikoaren arazoa arintzeko. ✗ Kimikak ekarpen handia egin liezaioke medikuntzari sendagaien alorrean. ✗ Komenigarri litzateke, ahal izanez gero, urtean behin bederen oporretara irtetea. ✗ Arazo hori konponduko da noizbait. ✗ Litekeena da bide egokiena hori izatea, zalantza ugari ditudan arren. ✗ Baliabide naturalen gehiegizko ustiapenak kalte nabarmenak eragiten ditu ingurumenean. ✗ Eskolaren ardura litzateke ikasketak garai berriekiko premietara egokitzea. ✗ Litekeena da arazo hori noizbait konpontzea ✗ Lan hori edozeinek egin dezake	

Zer nolako aditza dute ziurtasuna adierazteko erabiltzen diren esaldiak?

Eta probabilitatea adierazten dutenek?

16. jarduera. Egindakoa birpasatzen.

Taldeko batek 13. jardueran idatzitako argudio-testua ozenki irakurriko du eta besteek arretaz entzungo diozue. Ondo ulertzen al da testua?



Ondoren, beste talde batekoekin trukatu duzue gutuna, kontrol-orriko irizpideak betetzen diren ala ez adierazi eta beharrezkotzat jotzen dituzuen iradokizunak egingo dituzue.

Amaitzeko, irakurri besteek zuen testuari egindako iradokizunak eta zer edo zer hobetzerik badago, zuzendu.

KONTROL-ORRIA	BAI/EZ	IRADOKIZUNAK
• Jasotzailea konbentzitzeko xede argia du testuak		
• Egitura argia du: sarrera (tesia), gorputza (tesiaren argudiaketa) eta konklusioa.		
• Testuaren tesia argi dago		
• Tesiaren aldeko argudioak argi eta ondo garatuta daude		
• Kontrako tesia ezeztatzeko argudioak ondo erabili ditu		
• Paragrafo bakoitzak ideia bakarra garatu du		
• Paragrafoak euren artean ondo lotuta daude. Kohesio elementuak ondo erabilia daude		
• Erregistro egokia, formala		
• Erreferentzia ez da galtzen		
• Puntuazioa egokia da		
• Modalizazio-markak egoki erabilia daude		
• ...		
TESTU HAU ARGUDIO-TESTU EGOKIA DELA USTE DUZUE?		

5. LAN-SEKUENTZIA KEXA-GUTUNA EKOIZTEN


Dagoeneko argudio-testua prestatu duzue, baina gogoratu azken ekoizpena erakunde edo hedabide bati bidaliko diozuen kexa-gutuna dela. Sekuentzia honetan, gutun formalek, hizkerari dagokionez, konbentzioz dituzten ezaugarriak aztertu, eta zuen gutuna behar bezala bidaltzeko prestatuko duzue.

17. jarduera. Kexa-gutun formala, nolakoa da?

Taldeka, aukeratu eta jarri gutunaren atal bakoitzaren izena:

Amaierako agurra, sinadura, data, igorlearen datuak, gorputza, erakundearen helbidea, hasierako agurra

KEXA-GUTUN EREDUA



18. jarduera. Lehen ziriborroa.

Taldeka, erakunde bati zuzendutako kexa-gutuna idatziko duzue, aurreko sekuentzian egindako argudio-testua erabilita. Ez ahaztu gutun formalaren atalak izan behar dituela eta baita erregistro egokian idatzita egon behar dela. Idatzi ondoren aztertu honako kontrol-zerrenda hau erabiliz.



KEXA-GUTUNA AZTERTZEKO KONTROL-ZERRENDA	
Atal guztiak ageri dira.	Bai/Ez
Atalen banaketa egokia da.	
Paragrafo bat baino gehiago erabili duzue.	
Sarrerako agurra eta azken agurra egiteko esamoldeak formalak eta egokiak dira.	
Hasieran eskutitza idazteko zergatia adierazi duzue.	
Eskutitza norentzat den idatzi duzue.	
Jasotzaileak erantzutera bultzatzeko arrazoiak eman dituzue.	
Jasotzaileak, informazio nahikoa du zuei gutunaren erantzuna bidaltzeko.	
Azken agurra bat-batean idatzi duzue.	
Trataera molde (erregistro) bera erabiltzen duzue gutun osoan.	
...	



19. jarduera. Azken ekoizpena.

Gutunaren atalak ondo zehaztuta, idazketa prozesua burutu duzue. Orain, beste talde batekin aldatuko duzue gutuna eta hurrengo koadroko zuzenketa-irizpideak kontuan hartuz txantiloia beteko duzue. Amaitzeko, irakurri zuzenketa eta zer edo zer hobetzerik badago zuzendu. Irakasleak batuko ditu azken gainbegiradatxoak emateko; eta ondoren, bidaltzeko prest egongo dira.

	ZUZENKETA-IRIZPIDEAK	Bai/Ez	Iradokizunak
EGOKITASUNA	- Jasotzailea konbentzitzeko xedea du testuak - Igorlea eta hartzailearen arteko dialogoa ematen da - Testu subjektiboa da - Erregistroa bakarra eta egokia da: formala.		
KOHERENTZIA	- Kexa-gutunaren atal guztiak ageri dira - Testuaren tesia argi dago - Tesiaren aldeko hainbat argudio-mota ezberdin erabiltzen dira - Tesiaren aldeko argudioak ondo garatuta daude - Kontra-argudioak ondo erabiltzen ditu - Paragrafo bakoitzak ideia bakarra garatzen du		
KOHEGIOA	- Paragrafoak euren artean lotuta daude - Testu-antolatzaileak eta lokailuak ondo erabili ditu - Erreferentzia galdu egiten da - Puntuazio-akatsak daude		
ZUZENTASUNA	- Perpausak sintaktikoki ondo egituratuta daude - Nahaste edo akats lexikoak daude - Akats ortografikoak daude		

Auto-ebaluazioa

UNITATEA BALORATZEKO GALDEKETA

1. Unitate honetan ikusitako edukietatik zein interesatu zaizu gehien eta zein gutxien?
 - Argudio-testuen ezaugarriak
 - Kexa-gutun formalaren ezaugarriak
 - Tesia eta gaia bereiztea
 - Argudio-motak
 - Testua kohesionatzeko baliabideak
 - Modalizazio-markak
 - ...
2. Zure ustez, ba al da gehiago landu beharko litzatekeen edukirik? Aipa itzazu.
3. Zein jarduera kostatu zaizkizu gehien?
4. Zein jarduera kenduko zenituzke?
5. Azken ekoizpena prestatzeko laguntza eta informazio nahikoa izan duzu.
6. Aipa itzazu unitate honetan ikasitako eta zure ustez eguneroko bizitzarako baliagarriak diren edukiak.
7. Nola baloratuko zenuke amaitu berria duzun unitatea? (81etik 10era)
 - Unitatearen edukiak:
 - Erabilitako metodologia:
 - Erabilitako materialak:
 - Saioen erritmoa:
8. Zure ustez nola hobetu daiteke unitate hau?
Iradokizunak: